

CARITASEN KANPAINA

2014.eko ABENDUAREN 21a

ABENDU ALDIKO 4. DOMEKEA (B)

***Elkartasuna:
«Eskubideak guztion eskura»***

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✚ Gogoratu ezinbestekoa dala liturgi lagungarri honeek, luzerari zein hizkerari jagokenez, alkarte bakoitza egokitzea. Jaramon egin, gainera, Caritasen bialtzen dituan lagungarri guztiei.
- ✚ Ondo legoke Caritasen boluntarioek gaurko ospakizunetan esku-hartze nabarmena izatea.

HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Abendu aldiko laugarren domeka honetan, Maria Birjina Deikundearen pasarte ebanjeliko eder eta sakonaren bidez jatoriku. Jaungoikoaren aukeraketa beti da grazia, doea, osotasuna.

Jaungoikoa entzuteak, Beratzaz fio izateak, Bera onartzeak merezi daukela erakutsiko deusku Mariak, geuk be Kristori mundu honetan jaiotzen lagundu deiogun.

«Eskubideak guztion eskura». Gabonak atarian dirala, Bizkaiko Caritasen kanpaina ospatuko dogu. ALKARTASUNERAKO deia da ESKUBIDEAK gizaki guztien DUINTASUNERAKO bide lez aurkeztuz.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

21 de DICIEMBRE de 2014

DOMINGO 4º DE ADVIENTO (B)

«Solidaridad se escribe con ‘D’ de derechos»

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✚ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad, así como el tener en cuenta todos los materiales que Cáritas envía.
- ✚ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Dentro del Adviento, en este cuarto domingo, la Virgen María nos llega a través del bello y profundo pasaje evangélico de la Anunciación. La elección de Dios es siempre una gracia, un don, algo que plenifica.

María nos enseñará cómo merece la pena escuchar a Dios, fiarnos de Él y acogerle, para que Cristo pueda seguir naciendo en medio de este mundo.

«Solidaridad se escribe con D de derechos». En este domingo cercano a la Navidad abordamos la campaña de Navidad de Cáritas Bizkaia desde una llamada a la SOLIDARIDAD basada en el respeto y la promoción de los Derechos Humanos desde la DIGNIDAD de todas y cada una de las personas.





SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deutzagu ospakizunari...

ABADEAREN AGURRA

Jesukristo gure Jaunaren bakea, maitasuna eta itxaropena, zuekin.

KOROAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA:

Gabonak hurran doguzala, Abendu aldiko koroaren azken kandlea biztuko dogu. Argi horren distirak gidatu gaizala etorri datorren Jaunaganako bidean.

Laugarren kandela biztu eta esan:

- Ilunpetan bizi diranei argi egitera zatozan munduaren argia zarana: Erruki, Jauna.
- Zure herriari zuzentasunezko bideak zabaldu gura deutzazuzan gizadiaren gidaria: Kristo, erruki.
- Gure makaltasunaren zauriak sendatzera zatozan bizi-iturria: Erruki, Jauna.

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

(2S 7,1-5.8b-12.14a.16)

Lehenengo irakurgaiko kontakizunaren arabera, Dabidek eleiza eregi gura deutso Jaungoikoari bere leinua sendotzeko. Baina Jaungoikoak egiten dau etxea erregearentzat eta bere herriarentzat.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI

(Erm 16,25-27)

Bigarren irakurgaietan, Paulo apostoluaren hausnarketa sakona aurkezten jaku: Ebanjelioa barri ona da gizadiarentzat.

EBANJELIOA

CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidos en el canto.

SALUDO DEL PRESIDENTE

La paz, el amor y la esperanza de Jesucristo, el Señor, estén con todos vosotros.

GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL:

Cercana ya la Navidad, encendemos el último de los cirios de la corona de Adviento. Que el resplandor de esta luz nos guíe en el camino al encuentro del Señor, que ya llega.

Se enciende el cuarto cirio y se continúa:

- Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas: Señor, ten piedad.
- Guía de la humanidad, que quieres abrir a tu pueblo sendas de justicia: Cristo, ten piedad.
- Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad: Señor, ten piedad.

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

(2S 7,1-5.8b-12.14a.16)

Según el relato de la primera lectura, David quiere levantar un templo a Dios para fortalecer su dinastía. Pero es Dios quien hace una casa para el rey y para su pueblo.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA

(Rm 16,25-27)

En la segunda lectura, se nos ofrece una profunda reflexión del apóstol Pablo, quien proclama que el Evangelio es una buena noticia para la humanidad.

EVANGELIO

JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Egin daigun bat otoitzean, Jaungoikoaren Semeak gizadi osoaren bidea barritu daian:

- Maria bere itzalaz estali eban Espiritu Santuak adorea emon deion Eleizari, etsipena gainditu eta fede bizigarria ilusinoz zabaldu daian.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasek eta pobretasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenek iraun daiela eskaintzan eta euren lekukotasuna bultzada izan daigula Gabon solidarioagoak bizitzeko.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Herrietako agintariek gizaki guztiak bardin hartu daiezala duintasun eta eskubideetan, benetako batasunerantz joteko.

Eskatu deiogun Jaunari.

- Kristinau alkarte bakotxak eta kide guztiok Jaungoikoaren laguntzaile izan gaitezala behartsuen askapen eta sustapenerako eta euren gizarteratzerako.

Eskatu deiogun Jaunari.

Zatoz, Jauna, eta poztu eizu atsekabetsuen bihotza; emoiguzu indarra zure atzetik joan gura dogunoi, argia ezagutzen ez zaituenei eta bihotz barria norberekerian itxita bizi diranei. *Errege bizi zara-eta gizaldi eta gizaldi guztietan.*

OHARRA CARITASENTZAT DIRUA BATU AURRETIK

Caritasek ezinbestekoa dau dirulaguntza baztertuengana, azkenengana heldu ahal izateko. Gaur batzen dan dirua horretarako izango da.

Eleizbarrutiko Caritasen izenean, eskerrik asko alkartasunez jokatzegaitik.

ORACIÓN UNIVERSAL

Unámonos en la oración para que el Hijo de Dios renueve el camino de la humanidad entera:

- Para que el Espíritu Santo, que cubrió a María con su sombra, infunda valor a la Iglesia, aleje de ella la desesperanza, y transmita con ilusión la fe que da sentido a su vivir.

Rogemos al Señor.

- Para que Cáritas y quienes trabajan contra la pobreza y a favor de la justicia se mantengan firmes en su entrega, y su testimonio nos impulse a vivir una Navidad más solidaria.

Rogemos al Señor.

- Para que quienes tienen la misión de gobernar los pueblos apuesten por la igualdad de todas las personas en dignidad y derechos y hagan posible el camino común de los pueblos hacia una unidad cada vez más convencida.

Rogemos al Señor.

- Para que cada comunidad cristiana y quienes las formamos nos sintamos llamados a ser instrumentos de Dios para la liberación y promoción de los pobres, de manera que puedan integrarse plenamente en la sociedad.

Rogemos al Señor.

Ven, Señor, y da tu consuelo a los afligidos, tu fuerza a quienes queremos seguirte, tu luz a cuantos no te conocen y un corazón nuevo a quienes viven encerrados en su egoísmo. *Tú, que vives y reinas por los siglos de los siglos.*

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO:

Cáritas necesita nuestro apoyo económico para poder seguir llegando a los más excluidos, a los últimos. La colecta de hoy será íntegramente destinada a este fin.

En nombre de Cáritas Diocesana, gracias por vuestra solidaridad.





HAUSNARKETARAKO JAUNARTZE OSTERAKO

Jauna, nire bizia eta neure alderdirik onena
 emon gura dot besteen zerbitzari izateko.
 Erakutsi eidazuz alkartasunaren bideak.
 Eroan naizu errukiaren bidetik.
 Lagundu eidazu maitasun eraginkorra emo-
 ten.
 Emon zure eskua, Jauna, eta eroan naizu be-
 har nabenengana.
 Nire denporea, nire ahalegina, dodana eta
 nazana emoteko gogoia eskaintzen deustu-
 daz.
 Zure eredia neuretzat hartu gura dot.
 Prestatu nire eskuak, nire bihotza eta nire
 burua, besteen bila aterateko,
 zure arpegi bizia sufritzen dabenagan antze-
 maten dauan begirada izateko.
 Jaungoiko ona, on eta bizimodu duina gura
 dozuz danontzat,
 lagundu eidazu erne eta zure Erreinuaren
 eraikuntzan irauten.
 Amen.



TEXTO DE REFLEXIÓN PARA DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Señor, quiero entregar mi vida y lo mejor de
 mí para servir a los demás.
 Muéstrame los caminos de la solidaridad.
 Llévame por la senda de la compasión.
 Haz que mi amor sea eficaz.
 Dame tu mano, Señor, y guíame hacia donde
 me necesiten.
 Te ofrezco mi tiempo, mi esfuerzo, mis ganas
 de dar y darme.
 Quiero seguir tu ejemplo.
 Prepara mis manos, mi corazón y mi mente
 para salir al encuentro de los demás,
 para tener una mirada que sepa descubrir tu
 rostro vivo en quien sufre.
 Dios bueno, que quieres el bien y la vida
 digna para todos,
 ayúdame a estar vigilante y construyendo tu
 Reino.
 Amén.

